

1.100 pertsonatik gora elkartuko dira EMIM 2025 kongresuan, irudi molekularren erronkez jarduteko

Jordi Llop doktorea, CIC biomaGUNEko kidea, Irudi Molekularren Europako 20. Kongresuaren (EMIM 2025) buru izango da. Kongresua gaurtik hilaren 14ra bitartean egingo da, Bilbon

Diagnostikoan, ikerketa fisiopatologikoan eta tratamenduen ebaluazioan aplikatutako irudi molekular eta funtzionalaren arloko azken aurrerapenak izango dira aztergai

Donostian, 2025eko martxoaren 11n. Gaurtik hasi eta martxoaren 14ra arte, Irudi Molekularren Europako 20. Kongresua ([EMIM 2025](#)) hartuko du Bilboko Euskalduna Jauregiak. Topaketa horretan, irudi molekularren arloko mundu osoko 1.100 zientzialarik baino gehiagok hartuko dute parte. Zientzia bikainez beteta egongo da ekitaldia, eta plataforma inspiratzailea izango da irudiaren zientziaren arlo zabalean ezagutza-trukea eta diziplina arteko lankidetzak sustatzeko. Jordi Llop doktorea izango da kongresuaren buru, CIC biomaGUNEko (Biomaterialen arloko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa, Donostian kokatua) [Erradiokimika eta Irudi Nuklearreko Laborategiko](#) ikertzaile nagusia eta [Irudi Molekularren Europako Elkarteko](#) (ESMI) presidentea.

Irudi molekularra oso eremu zabala da, oinarrizko ikerketa, ikerketa aurreklinikoak, translazionala eta klinikoa barne hartzen baititu. Llopek azaldu duenez, "aukera ematen du aztertzeke zer gertatzen den maila molekular edo funtzionalean organismo baten barruan, oro har modu ez-inbaditzailean, eta hainbat aplikazio ditu, hala nola gaixotasunen diagnostikoa, haiei lotutako fenomeno fisiopatologikoen ikerketa eta tratamendu jakin bati nola erantzuten zaion ebaluatzea, gaixotasun-sorta zabal batean (minbizia, gaixotasun neurodegeneratiboak, arnasketakoak, kardiobaskularrak, infekziosoak, gastrointestinalak, muskoeskeletikoak eta abar)".

Llopen iritziz, "gaur egun komunitate zientifikoak gero eta arazo konplexuagoi aurre egiten die. Ingurune biomedikoak ezagutza oso desberdinak dituzten adituen elkarlana behar du asmo handiko proiektuak aurrera eramateko. Elkarlana funtsezkoa da". EMIM 2025 kongresuan, aste honetan, irudi molekular eta funtzionalaren arloko azken aurrerapenak landuko dituzte; irudi-modalitate ugari jorratuko dituzte, eta eskala-tarte zabal batean, maila mikroskopikoetatik makroskopikoetara. Horrek barnean hartzen ditu, halaber, irudi bidez gidatutako terapietarako eta terapia teranostikorako (terapia zein diagnostikoa barne hartzen dituen eremua) estrategia berriak.

Arlo horretan sortzen ari diren joera batzuk nabarmendu ditu Llopek: "Gaur egun, biziki gorantz doaz erradioteranostikoa, irudi bidez gidatutako kirurgia, ikuspegi molekular eta funtzionalatik zenbait eskalatan garunaren funtzionamendua hobeto ulertzeko hainbat planteamendu, eta arazo konplexuetarako erantzun integralak bilatzeko irudi-modalitateak integratzea".

Horretaz gain, CIC biomaGUNEko ikertzaileak azpimarratu du garrantzi handia duela eta "gizartean ahalegin handia egiten ari dela animaliekiko esperimenduzkoan irizpide etikoak

txertatzeko". Ildo horretan, kongresuan "3 R-en printzipioari (ordeztea, murriztea eta fintzea) jarraitzen dieten prestakuntza-saioak sartu dira, ordezte-ereduak sustatzeko (animaliarik erabili gabe farmakoak ebaluatzeko aukera ematen duten eredu 'bizigabeak')".

Llop pozik dago kongresuko parte-hartze handiarekin (1.100 pertsonatik gora) eta aditu-talde handiarekin, "ezagutzak partekatuko eta ideia berriak emango baitituzte". ESMIko presidentek adierazi duenez, urteko kongresu hau "nabarmen hazten ari da urtez urte. Guztira, 680 *abstract* edo azterlan jaso ditugu, 27 herrialdeetakoak. Gehienak, Europakoak, baina azken urteotan Europatik kanpoko herrialdeetako parte-hartzea handitzen ari da, bai Amerikakoa (batez ere AEBkoa), bai Asiakoa eta Australiakoa". Kongresua antolatzeak aukera ematen du "bai gure ikerketa-taldea eta bai CIC biomaGUNE eta Euskadi Europako eta munduko irudi molekularren mapan kokatzeko".

Irudi aurreklinikoan ikertzeko Europako azpiegitura handienetako bat

CIC biomaGUNEren [Irudi Molekular eta Funtzionaleko Plataforma](#) (Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak irudi biomedikoaren arloan Azpiegitura Zientifiko eta Teknologiko Berezi —ICTS— gisa aitortua) Europako irudi aurrekliniko ikerketa-azpiegitura handienetako bat da. Instalazio berean biltzen dira irudi-teknika guztiak eta ziklotroi bat; horretan, isotopo erradioaktiboak ekoizten dira, markatze erradioaktiboa duten konposatuak sortzeko zentroko erradiokimikako laborategian. Konposatu horiek aukera ematen dute, gero, organo, ehun edo sistema biologikoak ikusteko. Horri guztiari esker, malgutasun handiarekin eta bizkor erantzuteko gaitasunarekin egin daitezke azterketak.

Erradiokimika eta Irudi Nuklearreko laborategiak, [Jordi Llop](#) buru duela, askotariko proiektuetan dihardu lanean, irudi molekularren bidez aurrerapenak egiteko, besteak beste, maskuriko tumoreak murrizten, bularreko minbiziaren metastasitik datozen garuneko tumoreak aztertzen, birika-aireztapeneko markatzaileak garatzen eta alzheimerren aurkako tratamenduak ebaluatzen.

CIC biomaGUNEri buruz

[CIC biomaGUNE](#) Biomaterialen Ikerkuntza Kooperatiboko Ikerkuntza Zentroa Basque Research and Technology Alliance ([BRTA](#)) aliantzako kide da, eta abangoardiako ikerkuntzan jarduten du kimikaren, biologiarren eta fisikaren arteko interfazean, arreta berezia eskainiz maila molekularreko nanoegitura biologikoen propietateen eta haien aplikazio biomedikoen aztertzeari. 2018an, "María de Maeztu" Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.